

JAI BATZORDEA

Eguna: 2022/10/05

Bilera zenbakia: 4. bilera

Ordua: 17:30

Partaideak: Iker Mendizabal, Jabi Diaz, Nagore Etxeberria, Sua Lasa, Emma A., Borja (Arbelaitz), Ekain Sodupe eta Iñigo Adurriaga (guraso elkarte), Mari Garro eta Rosario Arza (jubilatua), Nerea.

LANDUTAKO GAI ORDENA

- Ekintzez ekintzako balorazioa
- Balorazio ekonomikoa
- Iberdrolako errekurtsua

1.- Laburbilduz hauek jaso dira ekintzen inguruan, bereziki hobetu beharrekoetan aritu gara edo kontuan izateko gauzetan:

- Ostegunetik astea, hurrekin zerbait egiten, positibo baloratzen da, hau herriko gazteekin antolatzen bada aurten bezala primeran.
- Kuadrila eguna indartu behar da, blusak, zapiak, kamisetak egiteko deia eginez.
- Zinta karreran merendola ez zen egin, koordinazio falta. Erabaki bai, ez zeinek.
- Lagunarteko jolasak egitea agian larunbatean hobeto. Giroa sortu zen baino bazkalostean agian heldu eta haurren interakzio handiagoa sortuko litzateke eta denbora gehiago izan jolasetarako.
- Batukaleroak ondo, baino repertorioa edo aldatzea aipatu dute.
- Pregoa, herriko gazteei tokatzen zaie 2023an.
- Afaria: Tiketak egin plantilla orokor batzuk plastifikatuak eta zenbakituak otorduetarako, urtero sortzen ez ibiltzeko.

Begano aukera 2. platera garbantzua ez izatea proposatu da.

Kazuelak eramaten badira, igandean elkartean egon behar dutela ziurtatu behar da.

- Kontzertua ondo dago, horrelako musika mota egiten dituzten taldeak ekartzea, girotzeko. Iberdrolako arazoa konpondu ahal izan zen.

Herriko oholtza eta estalkia erabiltzea ere positibo baloratu da.

- Beitiko igoera, partaideei denei zerbait ematea positibo baloratu da. (guraso elkartean kexuren bat egon den arren, sari ezberdintasunaren inguruan)

- Paella janean garbiketarekin arazoak egon dira. Jubilatuek esku bat bota dezakete baino ez arduratu. Plater batzuk garbitu gabe gelditu dira, inorrenak ez zirela eta. Ondo nola egin pentsatu behar dugu, garbiketa txandak egin, ordua eman talde bakoitzari?
- Txan magoa luze joan omen zen, gero jasoketan ere luzatu zen. Kontuan izan behar dugu Ijitto showa egiteko, denboran ezin dela luzatu aurreko emanaldia.
- Ijitto showan parte hartzea sustatzeko zerbait pentsatu, sariren bat?
- Mozorroak, diploma gutxiago eta atera.
Hurrengo urtean gai librea
- Hamburgesa jana oso ondo joan zen.
- DJ-a balorazio ezberdinak baino gazteek oso ondo baloratu dute. Musika teknoa bada ere, reggeton eta matxistarik ez da onartuko.
- Hamaiketakoaren gaizki ulertua azaldu da. Kontuan izango da.

Aipatu diren beste batzuk:

Legorretako garagardo festa eta Itsasondoko jaiak koinziditzen dute, komentatu Legorretakoei.

Festen ondorengo bideoak lan asko ematen du, Emmak azken urtea izango du egingo duena. Ea hurrengo urtean bolondresik ba ote dagoen.

Festen aurretik zerbitzu, udal langile eta zinegotziak ondo zerrendatu egin beharreko lanak.

Egin beharreko zerrendan lanak zerrendatuta daude baino bilera bat egingo da festen ondoren hauek erreparatzeko eta hutsuneak egon badira kontuak izateko.

2.- Balorazio ekonomikoa

10.000€ko aurrekontua izanik, 9379,32€ erabili dira (620,68 erabilgarri gelditu dira)

Eragiten txostenena zehaztua

3.- Iberdolako ebazpena

Iberdolakoek gutun bat bidali dute, arrazoi handigirik eman gabe barkamen eske. Ez dute zerbitzua kobratuko.